

# Jose Luis Ansorena: musikari eskainitako bizitza

Manuel Lekuona Saria 2011

**Salinas Elozegi, Aitziber**

Musikaren eguneko arratsaldean, txistu doinuek hartu zuten Gipuzkoa plaza, egun berezia zela iragartzen zuten doinu horiek, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren areto nagusian Jose Luis Ansorena musikologo, musikagile eta zuzendaria omentzeko prest zegoen jendea biltzen ari zen. Donostiako Alde Zaharrean jaiotako musikariak bere alorrean egindako lanagatik jaso zuen 2011ko Manuel Lekuona saria 2012ko ekainaren 21eko arratsean. Hain justu, urtero, euskal kulturako pertsonalitatearen bati bere bizitza osoan egindako lanagatik Eusko Ikaskuntzak ematen dion sari hau beste hiru musikaririk ere jaso zuten Jose Luis Ansorenaren aurretik: Jorge de Riezuk, Sabin Salaberrik eta José Antonio Arana Martijak. 2011koa, musikografo gisa egindako lan biografiko eta katalogafiko oparoa duenarentzat izan zen, baina, gainera, Jose Luis Ansorena musikagilea ere bada, organista, koru zuzendaria, euskal musika ondarearen sustatzaile eta hedatzailea eta abar luzea.

Eta Jose Luis Ansorenak berak ereindako zenbait fruiturekin gozatzeko aukera izan zen ekitaldian bertan, izan ere, berak sortutako Orereta haur abesbatzeko ahots goxoekin Francisco Escuderoren *Izar Ederra* kantuak ireki zuen ekitaldia.

José María Muñoa Eusko Ikaskuntzako lehendakariak ongietorria eman ondoren, Jose Ignazio Ansorenak, sarituaren biografiaren egile eta honen ilobak, osabaren irudia goratu zuen *laudatio* bat irudikatuz eta bere bizitzan musikak eta bereziki txistuak izan duen garrantzia azpimarratuz. Izan ere, osaba, Isidro Ansorena txistulari handiaren seme gazteena, musikan eta kantuan hazi zela azpimarratu zuen, eta baita horretarako dohain berezia zuela ere. Baina, batez ere, “fede onak eta zintotasunak” bultzatutako Jose Luis Ansorenaren “ausardia” azpimarratu zuen Jose Ignazio Ansorenak.

Errenteriako Andra Mari Koralak ere goratu nahi izan zuen bere sortzailearen irudia eta, horretarako, hamar minutuko bideoa prestatu zuten bertako kideek Jose Luis Ansorenari buruz, ekitaldian izan zirenen gozagari.

José Maria Muñoak ere laudatu zuen Musika Eguneko protagonista, ez musikari gisa egindako merituengatik bakarrik, baizik eta baita euskal musikaren zabaluntzarako egin duen lan guztiagatik:

Berak ikusi zuen premiazkoa zela musikari euskaldunak ezagutzera ematea, jendea arte aberasgarri honetara erakartzeko eta kultura musikala areagotzeko. Aldi berean, musikari euskaldun ezagun eta ezezagunen partiturak bildu zituen, eta hondamenditik edo ahanzturatik babestu zituen, azpimarratu zuen Eusko Ikaskuntzako lehendakariak.

## 1. Konpromiso sendoko bazkidea

Eta ez da edonor Eusko Ikaskuntzako lehendakaria Ansorenaren irudia goratzeko, izan ere, Jose Luis Ansorena Eusko Ikaskuntzaren baitan, konpromiso sendoko bazkidea izan da eta baita Musika Saileko buru izan ere 1978. urtetik 1980ra eta 1987tik 1988. urtera.

Eta bazkide mota horixe nabarmendu nahi dut gaur hemen. Gure erakundean, bazkide horiek gehiago eman dute jaso baino; erabilgarri eta eraginkor izaten jakin dute. Profesionalak ez diren sortzaile eta adituak dira; *ex cathedra* hitz egin ordez, beren lanaren bidez adierazten dute beren gogo bizia, eskuzabaltasuna eta Euskal kulturarekiko maitasuna. Jose Luis Ansorenaren bitartez, irakaskuntzaz kanpoko ikertzaile eta adituak omendu nahi ditut, hainbeste aberasten gaituzte, azpimarratu zuen Muñoa lehendakariak.

## 2. Familia apaleko donostiar, euskaltzale eta musikazalea

Manuel Lekuona sarirako 2011ko aukeratua 1928. urtean jaio zen, Donostian, eta bertako kontserbatorioan egin zituen musika ikasketak.

Familia hartan politikak ez zuen leku handirik. Isidro euskaltzalea zen eta abertzalea, baina inoiz ez zen nabarmendu, besteak beste, bere lanpostuak denon zerbitzuan izatea eskatzen ziola uste zuelako. Giroa gerrarekin trakestu zen. Isidrori zigorra jarri zion Udalak salaketa ezkutu batengatik, eta horrek arrastoa utzi zuen. Jose Luisek eta beste anaiarrebek ikusi zituzten gurasoak etxean *ikurrina* erretzen, inork harrapatuko zuen beldurrez. Isidrok zuen ehiztari eskopeta ere agintari nazionaleri eman behar izan zien. Eta euren hizkuntza, euskara, ordurarte etxeko hizketa modu normala, bakarrik senarremazteen arteko elkarriketatarako geratu zen, isil-misilka gainera. Horregatik anaia-arreben artean halako erreten bat gertatu zen, zaharrenek euskaraz ikasi zuten eta gazteenek ez hainbeste, horretan kaleko eta eskolako giroak ere ez zuelako laguntzen. Jose Luis azken hauetakoa zen. Piskana, umetan nabaritu ez arren, urteak aurrera joan ahala, marka hori zauri bihurtuko zitzaion,

kontatzen du Jose Ignazio Ansorena Miner Jose Luisen ilobak *Jose Luis Ansorena, barne sua* Eusko Ikaskuntzaren enkarguz okasiorako idatzitako biografian.

2011eko Manuel Lekuona Saridunaren familia

[...] maila sozial eta ekonomiko apaleko familia zen. Isidrok Udaleko langile arrunt baten soldata zuen eta, horrez gainera, txistulari gisan sos batzuk biltzen zituen. Etxeko guztiak aurrera ateratzeko bere ahaleginak ez ziren gelditzen: txistu eta danbolinak egin, bere aita

zenaren zaletasunari jarraituz. Txistu eskolak ere ematen zituen etxean. Ikasleen artean pertsona famatuak izan zituen. Esaterako, Nikolas Ormaetxea, *Orix*e, euskal idazle handiak gogo bizia zuen txistua jotzen ikasteko. Eskola gutxi batzuk eman ondoren, Isidro ezetz esan behar izan zion, doairik ez zuelako. Eta atabala jotzera bideratu zuen. Argazki eder bat bada, non Txomin San Sebastian, Astigarragako txistularia eta Isidroren adiskide maitea, azken honekin eta *Orix*erekin batera jotzen ari diren bazkalondo batean. Ignazio Lojendio, Donostiako familia aberatsenetakoa ere ikasle izan zuen. Semealabentzat oso preziatuak izaten ziren txokolatinak eramaten zituen honek eskolak hartzera joatean,

gogoratu du Jose Ignazio Ansorenak.

Bestelako goseak bai, ordea. Musika gosea, esaterako, bazen etxe hartan. Isidro uste sendoa zuen: pertsona guztiei gutxienez hiru urtetako musika hezkuntza –solfeo eta tresna baten hastapenak– eskaini behar zitzaie. Hura oinarritzko heziketa zela iruditzen zitzaion. Horregatik seme-alaba guztiak Kontserbatoriora bidali zituen eta berak prestatzen zizkien doinu ederren moldaketak elkarrekin kanta arazten zien. Bramsen 15. vals ezagunaren gainean hau egokitu zuen hiru ahotsetan hiru alaba zaharrentzat:

Muxu goxo bat  
guretzat opa dezu,  
baina maitasunezkoa dan  
jakin nahirik gaituzu,  
bihozberak garenez gu,  
samurtasunaren zale,  
maiteño zoragarriaren alde.

*Bonbolontena* sehaska abesti ederra ere alaba gazteenei hiru ahotsetan irakatsi eta hauek elkarte gastronomikoetara joaten ziren, bazkalondoetan abestera, Amparo gazteenak metalezko hiruangelukoa jotzen zuelarik. Jose Luis ere Kontserbatoriora bidali zuen, 1936.ean, agjan urte gaizto horrek zerikusia izango du bere ikasbide musikalaren etengabeko zapuzketarekin. Han izan zituen irakasle Robustiano de Lucas, solfeoaren hasieran; Luis Urteaga, solfeoarekin batera harmonia eta konposiziorako gogoak pizten, eta Beltran Pagola pianoan,

kontatzen du Jose Luis Ansorenak idatzitako biografian bere haurtzaroaz.

### **3. Goseak Hernanira eta kaputxinoengana eramana**

Eta garaian nahi baino ohikoagoa suertatzen zenez, gosea ere izaten zen ansorenatarren etxean:

Sabeleko gose garaiak ziren Jose Luisen haurtzaroakoak. Gogoan du ama negarrez ikusi izana, denontzako nahi bezalako janariak ezin eros zitzakeelako. Ogia eta janari gehienak arrazionatuta zeuden. Horregatik etxeko guztiei goizez banatzen zien amak zegokien ogj pusketeta. Eta hurrek normalean berehala jaten zuten. Inñaki anaiak esaten duenez, “*bestela anaiarrebaren batek jateko arriskua baitzegoen*”. Eta familian denak ziren jatun onak. Isidrori lantokiko lagun batek noiz edo noiz txorizo xerra batzuk, eta gazta pusketak, erregalaten zizkion eta altxor moduan ekartzen zituen etxera. Denon artean jaten zituzten benetako debozioz.

Batzuetan Hernanira joaten ziren, familiaren *Leokadisti* etxeko baratzetik babarrun edo barazki batzuk ekartzera. Amak patrikera moduko bereziak josi zituen, barruko arroparen azpian ezkutatuta eramateko. Han ekartzen zituzten potaje maitatua egiteko erabiliko ziren lekaleak. Bazuen arriskua. Behin Isidro bera harrapatu zuten Amaran, tranbiatik jaistean, eta, janaria kentzeaz gainera, isuna jarri zioten. Beste batean Joskin anaia Hernaniko autobusetan zetorrela, *Abastos* saileko ikuskatzaileek Aiete parean hura gelditu eta miatzera ziohazela nabaritzean, leihotik behera bota zuen babarrun zakutxo. Trantzea pasa ondoren, hurrengo geltokian jaitsi, atzera egin, sasien artean zakutxo bilatu eta oinez itzuli zen etxera.

Agian horregatik du Jose Luisek gogoan lekaleak eta berdurak ez zituela maite. Baina inork ez du gogoan inoiz plateretan kondarrak utzi zuenik. Jaki bakarra ezin zuen irentsi: sardinak. Kexuan ibiltzen zen bizarrak zituztela eta.

Hain justu gose horrek izango zuen eraginik bere etorkizuneko erabakietan ere araba Consuelok Jose Ignazio Ansorena Minerri esandakoaren arabera:

Banatzen zizkieten janariak izan zitezkeen bertara hurbiltzeko arrazoia. Anaia Iñakik konfirmatuta badakigu kaputxinoek bertako gaztelekura joaten zirenei sagaratu beharreko formak prestatzean geratzen ziren *ebakinak* banatzen zizkietela. Baina Consuelok gehitu du beste datu interesgarria: ogitarteko oso onak ere ematen zizkieten, txorizokoak, txokolatezkoak, arrautz opilezkoak... Benetako luxua garai horretan. Anaiarrebek galdera egiten omen zioten etxeraterakoan: zer, nolako ogitartekoa gaur? Eta inbidia galanta pasatzen omen zuten horren kontura.

Kaputxinoetan, berehala mirestu zuen sakristau lanetan zebilen fraide lego batek: *Fray Donato de Torrano*, Nafarroako Sakanan den Dorrau herrikoa. Eredu imitagarria iruditu zitzaion denetarako zuen jarrera zintzoarengatik. Tolosako Frai Bernardo organo jotzailearekin ere harreman handia izan zuen, honek gidatzen baitzituen Eskolaniako haurren entsegu gehienak eta bera han zebilen ia hasieratik. Jose Luis oraindik mutil koskor bat zen eta bihurrikeriak egitea gustatu. Frai Bernardo haur kantariekin entsegu egitera prestatzen ari zen batean, harmonium zaharraren laguntza egiteko lekuan esertzera abiatu zenean, Jose Luisi aukia kentzea otu zitzaion. Fraile gaisoak hartu zuen ipurdikoa deigarria izan zen. Hala ere, altxatu, irribarre amultsuaz begiratu eta ez zion inongo kexurik egin. Jose Luisek orduan bere kolkorako pentsatu zuen: "*Ea noizbait, niri horrelakorik gertatuz gero, era berean erantzuteko gauza naizen*".

#### **4. Kaputxinoen bizimodua eredu**

Kaputxinoen bizimodua ezagututa, argi geratu zitzaion Jose Luisi bizimodu huraxe nahi zuela beretzat, baina etxean hartzekoa zen erabaki horren berri ematea izugarri kostatu zitzaion:

Lehendabiziko aldiz aipatu zuenean, Isidro aitak lasai hartzeko esan zion eta urte betez pentsa zezala erabaki sendorik hartu aurretik. Itxoin egin zuen arren, erabakia gero eta irmoagoa zen. Etxean esatea, ordea, gogor egiten zitzaion.

Isidro Ansorenarentzat gogorra gertatu zen semearen erabaki hura. Berak musikarenganako maitasuna erein zuen etxean. Abesteko zaletasuna piztu zion, eta, zuzenean inor bultzatu ez bazuen ere, bazuen barruan bere ondorengoetako batek txisturako zaletasuna garatuko zuten itxaropena.

Azkenik, 1942an Altsasuko kaputxinoen apaiztegia sartu zen, eta bertan batera egin zituen bai eliza ikasketak eta baita musikakoak ere, azken hauek nahi baino gutxiago ordea. Hala ere, ez zuen oso presente munduan gertatzen ari zen guztia:

Orain pentsatuta, konturatzen da oso irakasle frankozaleak zituela, baina garai hartan burutik ez zitzaion pasa ere egiten. Oso inozentea zela dio. Eta munduan zer ari zen gertatzen –1942ean esaterako Alemaniako Gobernuak juduen arazoa Gestaporen esku uztea erabaki zuen– ez zuen sumatu ere egiten. Sumatzen zuen, ordea, euskararen galera [...],

aitortu zion ilobari. Jose Luisek, Zaragozan egin behar izan zituen bi urteko ikasketen baitan, sermoilari izateko ikasbidean,

[...] txikitatik zuen euskararen minak eraginda, bere sermoia euskaraz ematea otu zitzaion eta horretarako baimena eskatu zuen. Baita harrigarriro eman ere, geroago agian euskal herrietan horri ekin beharko liokeelakoan. Han bota zuen bere hitzalida, beldurrez ez zelako oso trebea sentitzen euskaraz, eta bazkal ondoren Iberoko Frai Antoniok esan zion: “Gustura emango nituzke nik dakidan frantsesa, ingelsa eta alemana, zuk duzun euskara maila izateagatik,

kontatzen du Ansorena Minerrek.

1953an apaiztu eta Lurdesko Ama Birjinjaren egunean, urtarrilaren 3an eman zuen lehen meza 1954ean, Donostiako kaputxinoen elizan. Hain justu, luxuzko aitaxi erlijiosoak eskaini zuen bere burua horretarako, Aita Donostiak. “Ematen du musikari eta musikologo handi haren itzalak jarraitu ziola ikasketen ildoan eta eragina izan duela Jose Luisen bizitzan, bideak nola urratu argitu dizkiolarik”, dio bere biografiak. Gurasoek egun berezi horretan egindako opari berezia ere aipatzen da bertan: ebano eta zilarrezko txistua, Isidrok berak egina. Gainera, anaia Iñakik Schola Cantorumeko abesbatza eta dantzariak eraman zituen mezetara ospakizunean parte har zezaten.

## 5. Antolaketa lanetan trebea: Olentzero, abesbatzak...

Iruñeako gazteekin lanean ari zela,

Gabon gauean Donostian kalez kale ateratzen ziren *Jaiotzak* etorri zitzaizkion burura. Belengo misterioa agertzen zuten karroza batean: Haurra, San Jose, Ama Birjina, astoa, idia eta aingerutxoak. Haren inguruan gazte kuadrillak Eguberri abestiak kantatzen. Eta Urte zaharrean, aldiz, Olentzero ateratzen zuen kuadrilla abertzale batek: Alejandro eta Jose Mari Arregi, Juanito Aizpurua, *Kirol* Santamaria, ... Jose Luisek Iruñan ere antzeko zerbait egin nahi izan zuen eta honetan, beste hainbat kontutan bezala, Andoni Santamaria Eskolaniako kide ohiaren laguntza izan zuen. Baina lehendabiziko saiakeran, 1955 urtean, Gobernadore Zibilak ez zien baimenik eman. 1956ean, aldiz, Jose Luis, Manuel Valencia Remón Gobernadorearekin hitz egitera joan zen eta baimena lortu. Lehendabiziko urtean, Jaiotza bakarrik. Eta bigarrenean Olentzeroren irudia ere gehitu zitzaion. Harrez geroztik urtero burutu da, Jaiotzaren karroza dagoeneko agertzen ez delarik, azken urteetan, kontu politikoak direla medio, arazoak izan baditu ere. Jose Luisek hauek bezalako ekimen asko abiatu ditu bere bizitzan, berak alde egindakoan ere, euren bideari jarraitu ahal izan diotenak.

Hainbat erakunde eta elkarte sortu ditu Jose Luis Ansorenak, hala nola, San Antonioren Eskolania eta San Antonioren Gazteria Iruñeko kaputxinoen elizan 1954. urtean, San Antonioren Gazteria Zaragozako Torrero Komunitatean 1964. urtean, Erreterriako Andra Mari eta Parrokiako Gaztedia (Gaztedi) abesbatzak 1966. urtean, Oreretako haur abesbatza urtebete beranduago, Alai emakumezkoen zortzikotea 1972an eta Oiñarri gazteen abesbatza 1976. urtean.

Antolaketarako griña horrela azaltzen zuen Ansorena Mirandak berak *Eus-konews* aldizkariari eskainitako elkarrizketan:

Barrutik datorrit musikarekin lotutako elkarteak eta ekintzak antolatzeko gogoia. Oso aktiboa izan naiz beti. Iruñean, adibidez, ahots mistoen eskolania bat zuzentzen aritu nintzen, nagusien aginduz, eta oso ondo ibili ginen. Handik Zaragozara joan nintzen. Hango parrokiako korua emakumez zegoen osatuta, eta nik gizonaek ere sartu nituen. Duela 34 urte, Erreterriara etorri nintzenean, parrokiako koru bat sortzeko proposamena egin zidan, eta orduan Fatimako Andre Mariaren Korala sortu nuen, pozik gainera, asko gustatzen baitzitzaidan gazteentzat jarduerak antolatzea. Egun seinalatu guztietan abesten genuen, festa guztietan. Koru hori, azkenean, elkarte zibila bihurtu da. Gero, kontzertuei eskainitako aste berezi bat sortzeko ideia bururatu zitzaigun, Musikaste, Eresbil artxiboa... Andra Mari Koralaren ondotik etorri ziren beste guztiak. Hala ere, ez naiz ni bakarrik aritu, zuzendaritza ere hortxe egon da, beti lanerako prest.

Hala ere, beti ez zitzaizkion gauzak espero bezala atera,

Zaragozarakoan, 1964an, Jose Luis sinestuta joan zen behingoz musikaren ikasketan sakon aritzeko aukera izango zuela. Donostiako Kontserbatorioan bere ikasketa txostena eskatu zuen eta berri ona jaso ere bai: haur garaiko ikasgai guztietan bikain kalifikazioa zuen.

Paduako San Antonioren Komentua, non komunitate handia eta jarduera trinko ugariak baitzeuden, zen bere lanlekua. Hara iritsi bezain azkar, Superiorak administratzaile jarri zuen, komunitatean izandako liskar baten ondorioz, beste inork ez zuelako postu hori onartzen. Lan horrek musika ikasketetan murgiltzeko asmoa zapuztu egin zion, baina onartu egin behar izan zuen. Eginkizun horretarako autoa gidatzeko baimena behar zuenez, daltismoaren kontua ezkatatu zuen, bestela ez baitzioten emango.

Horrek ez du esan nahi ordea musika alboratuta utzi zuenik, inondik inora,

[...] lehendik zegoen Parrokiako Abesbatza adin nagusiko emakumeek osatzen zuten. Berak mixto bihurtu eta berehala gaztetu zen. Bertako *Juventud Antoniana* ere martxan jarri zuen. Eta agian bere euskarazko lehen sermoia Zaragozan eman zuela gogoratuz, han Aragoitar Olentzero antzeko bat prestatzea bururatu zitzaion eta egin. Beti ausarta izan baita ekimen berriei ekiterakoan. Arrakastaz burutu zuten kalez kaleko jardun kantaria, gaztelaniazko Eguberri abestiez, 1965eko Gabonetan,

jaso du Ansorena Minerrek.

## 6. Erretereria

Kontzilio Vaticano II.aren garaian iritsi zen Jose Luis Ansorena Erretereriara, 1966ko irailean hain justu. Bertan, Mari Carmen Martínez ezagutu zuen eta bera eta bere familia osoa laguntzaile izan zituen orduz geroztik Ansorenak abesbatzan, Musikasten, Eresbilen eta abar. Bertan, berehala hasi zen

[...] jende bila, beste abesbatzetan aritutako batzuk biltzen, iada ahots egokitua zuen jendea elkartzen. Era honetan, azkar batean Fatimako Andra Mari Parrokiako Abesbatzak maila ona lortu zuen, kripta hartan bertan entseguak eginez. Eta elizaren zabalpenerako mezan, 1966ko azaroko 13an, estraineiko saioa egin zuen.

Oso alor desberdinetan lan egitea egokitu zitzaion Jose Luis Ansorenari abesbatza aurrera ateratzeko, baina argi zuen nolako taldea nahi zuen *Jose Luis Ansorena, Barna sua* lanean jasotakoaren arabera:

Abesbatza ongi tratatutako talde humanoa izatea nahi zuen, partaideen arteko giro atsegin eta onekoa. Begi zorrotzez pertsona eta kantari apartak bildu zituen: Mitxelenatarrak, Arbelaitzarrak, Busselotarrak, Arretxetarrak, Juani Erkizia, Mari Carmen Martínez eta Antontxu Sainz Etxeberria... Beren artean familia harremanak baziren eta adiskidetasunezkoak ere bai. Aise ulertu zuten Jose Luisen mezua. Musika ez, pertsonak eta euren ingurua ziren helburu nagusia. Ideia hori azpimarratu izan du: *Musikak pertsona eraldatu egiten du eta jaso, fededun izan edo ez.*

Baina hasieran gauza asko erakutsi behar izan zituen abesbatzak berak ere:

Garai haietan, Erretereria inguru zaila zen jarduera kulturaletarako. Frankismoaren aurkako kale mugimenduen buruzagi eta ondoriozko zartadak hartzen lehenengo lerroan zegoen herria baitzen. Edozein ekimen berriari matrikula politikoa zorrozki begiratzen zitzaion. Abiada hartan *Karlsten Abesbatza* deitu zitzaion Andra Mariri, hasi ziren horien artean familia karlista ezagunetako batzuk ari zirelako. Horrek tentsio une batzuk sortu zituen, azkar batean gainditu zirenak, zuzendariaren eta abesbatzaren portaera ikustean.

Ekinaren ekinez lortu zuten hobera egitea.

Piskana pertsona gehiago hurbildu ziren entseguetara. *Karnaba* zortzikote ia osoa eta *Gaztedi* taldeko batzuk ere koruan sartu ziren. Abesbatza kontzertu ugariak eskaintzen hasi zen, deiak ere ugariak zituelako. Neurri handi batean Jose Luisen trebetasun bati esker: programa berritzaileak egitea. Horretan gogo eta lan handia jartzen zuen, musika eskaintzeko era erakargarri bihurtzea zuen helburu. Publikoak igartzen zuen eta eskertzen, kontzertuetan arakasta ederrak lortzen baizituzten.

Kezka zen Jose Luisentzat jarraipena ziurtatzea, gazteei ere kantuaren ateak zabaltzea. 1967an bere burua eskaini zion *Orereta* Ikastolari, bertako ikasleekin abesbatza sortzeko. Berehun ahots baino gehiago probatu zituen eta ehun inguru aukeratu. Hasieratik ederki funtzionatu zuen eta 1976ean, *Oinarr* gazte abesbatza fundatu zuen haur haiek gazte bihurtutakoan abesbatzen giroan jarraipena izan zezaten. Tartean, 1972an, emakumez osatutako lehenengo zortzikotea ere, *Alai* izenekoa, eratu zuen.

Jose Luisek abesbatz hauek sortu, tinkotu eta azkar batean beste zuzendarien eskuetan utzi zituen,

jaso du Ansorena Minerrek.

## 7. Musikaste

1971an kontzertu sinfoniko-koral bat eratzea proposatu zioten Jose Luisi. Proposamena onartu, aurrera egin, eta ekimena primeran atera zen, hainbeste, halako kontzertu bat urtero errepikatzeko gogotsu agertu zirela parte hartu zuten abeslariak.

Halaxe jaio zen, ia konturatu gabe, lehenengo Musikaste 1973an.



1990.05.26. Jose Luis Ansorena 1990ko Musikasteko koruen eguna zuzentzen, Aita kaputxinoen Elizan emandako kontzertuan. (Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa)

Arrakasta itzela izan zuen eta taldeko guztiek hurrengo urtean errepikatzea nahi zuten. Jose Luisek ere ondo ikusi eta, ondorioz, 1974an *Idearioa* idatzi zuen, aste horren jardunbiderako oinarri intelektual nagusiak. Benetako lege harriak. Asmoa aurrera ongi eramateko behar bat aldarrikatu zuen berehala: “*Euskal Musikarien Artxiboa* sortu behar dugu”,

kontatzen du Jose Ignazio Ansorena Minerrek eta gaineratu:

Musikasteren idearioak erakusten duen kezka nagusiaren iturburu haxe da: herri baten bizitzan artea, musika, beharrezkoak dira. Baina ez dira hutsetik etortzen, ez dira sasiengisan hazten, pertsonak egiten dituzte. Pertsona horien ezagupena eta euren emankizunen berri zabaldu behar ditugu, baldin eta kultura mamitua izatera iritsi nahi badugu. Musikasterekin bezala, izena Antontxuk proposatu zuen, hainbat euskaltzalerekin hitz egin ondoren: Eresbil.

Aldarrikapena egin eta berehala ekin nahi izan zion Jose Luisek eginkizun horri. Ez zuen go-goak hoztea nahi. Jose Antonio Arana Martija lagunaren ideia batean oinarrituta –Espai-



niako Katedraletan Kapera Maisu euskaldun asko izan zirela– eta Zaragozako motorraren lagun berberak oparitutako *Seat seiscientos* baten bitartez, gelditu ezean ibili zen zortzi urtez. Euskal konpositoreen partituren bilduma handia egin, gehiago ez galtzea nahi zuen. Fraileen Komunitatearekin hitz egin eta baimena eman zioten eliza azpiko gelak, Andra Mari-entseguetarako zituenak, horretarako erabil zitzen.

Jose Luis Ansorenak berak azaldu bezala, euskal musikagileek sortzen zuten musika hedatzeko beharra nolabait asetu beharra zegoela sentitzen zuen eta horretarako bultzatu zuen 1973. urtean Erretereriako Musikaste jaialdia. Hurrengo urtean, Erretererian bertan, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa sortuta zegoen, euskal musika ondarea bildu eta gordetzeko asmoz. Eresbilek berehala eman zituen fruituak, 1974an bertan hasi ziren garai guztietako euskal musikagileen partiturak biltzen. Urte hartako irailean egin zen 300 musikagile biltzen zituen lehen zerrenda. Eta etengabe hazten joan da kopuru hau, izan ere, 2008ko abenduaren 31n Eresbilek 1.775 zituen jada erregistratuak. Eta oraindik ere hazten jarraitzen du Eresbilek Jose Luis Ansorenak berak gogoratu bezala:

Eresbilek mundu guztiko editore pila batekin dauzka harremanak. Londonetik, adibidez, oso gauza bitxiak bidali dizkigute. Orain bertan Moskuko liburutegiarekin gaude harremanetan: Aita Donostiaren literatura musikaleko ale batzuk bidali genizkien, eta asko interesatu zitzaizkien. Musikari euskaldun eta unibertsalen argitaragabeko agiri asko dauzkagu, eta, horrez gain, Euskal Herriko folklorea ere lotutako materiala, musikarien biografia, pedagogia musikaleko liburuak, eta abar. Euskadin ez dago horrelako beste artxiborik. Madril eta Bartzelonan bai, hobeak gainera, baina hala ere gurean erraztasun handiagoak ematen ditugu obretara jotzeko.

Bere lanen zerrenda oso luzea da, baina labur esateko, musikagile moduan, Jose Luis Ansorenak erlijio musika eta musika korala egin ditu. Gainera, makina bat ikerketa, artikulu, liburu eta katalogo idatzi ditu euskal musikari buruz, eta idazgai izan ditu, halaber, musikagileen biografiak (Norberto Almandoz, José María Usandizaga, Pablo Sorozabal, Aita Donostia, Raimundo Sarriegi), txistua eta haren ingurunea eta euskal abesbatzen mugimendua.

Beti gustatu izan zait idaztea. *Txistulari* aldizkaria eta musikaren inguruko beste batzuk artikulu eta kolaborazio eske hasi zitzaizkidan, eta nik sekula ez dut ezezkorik eman. Gainera, inoiz ez dut kobratzen, eta ez diruari muzin egiten diodalako, baizik eta diru gutxiagorekin bizitzea posible dela demostratu nahi dudalako. Agian horrexegatik eskatu dizkidate hainbeste artikulu, ez kobratzeagatik. Liburuek lan handiagoa daukate, eta gainera arrazoiren baten-gatik idatzi ditut. Bat, adibidez, Musikaste sortu zela 25 urte bete direlako idatzi dut. Halako urteurrenetan gerora ere baliagarri izango diren gauzak egitea gustatzen zait, bazkariak, festak eta kontzertuak laster batean bukatzen direlako, baina liburuak hor gelditzen dira. Aita zenaren biografia ere idatzi nuen, eta azkenean *El txistu y los txistularis* liburuan sartu nuen,

azaldu zuen Jose Luis Ansorenak *Euskonews* aldizkarirako Teresa Salari eskainitako elkarrizketan.

Baina bazuen Jose Luis Ansorenak oraindik ase gabeko beste gogo bizi bat eta horri ere heldu zion: 1994ko udaran Lazkaoko *Maizpide* Euskaltegira joan zen, “euskaraz ongi ikastera. Hainbeste urtez gordetako gogoia oraindik asetu beharra sentitzen zuen eta”.



Errenteria, 1979. Eresbileko lokalaren inaugurazioa. Mahai presidentzialean Antontxu Sáinz, Jose Luis Ansorena, Pello Ibaguren, Sabin Olaizola, Xabier Aizarna, Miguel Querol eta Manuel Lekuona, Erebi-lesko artxiboan ospatu zen 1979 Musikasteren hasierako emanaldia. (Eresbil... Lopin p. 218)



Gipuzkoako Foru Aldundia 2012.06.21. Manuel Lekuona sari emate ekitaldia. Jose Luis Ansorena, Martin Garitano, Ahalduen Nagusia eta Jose Maria Muñoa, Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria. (Eusko Ikaskuntzaren Argazki Artxiboa)

## 8. Sari ugari

Halako lan mordoan egin ondoren, 2011ko Manuel Lekuona Saria ez da, inondik inora, Jose Luis Ansorenak jaso duen lehen saria, besteak beste jaso baititu Andra Mari abesbatzaren Urrezko eta Diamantezko Intsignia (1991), Txistulari Elkarrearen Urrezko Domina (1997), Algortako Biotz-Alai abesbatzaren Urrezko Intsignia eta Ohorezko Bazkide izendapena (1999), Donostiako Orfeoia – UPV/EHUren V. Saria (2005) eta Errenteriaren Seme Kutuna izendapena (2009).

## 9. Hunkituta. Musika egitea saririk onena

Baina egindako lan eskerga hori guzti horretaz gain, Jose Luis Ansorenaren izaera azpimarratu zuen Eusko Ikaskuntzako presidentek: “Gizon apala da, bere lana biziki maite duena. Sekula ez du kargu edo ohorerik bilatu. Gehien gustatzen zaiona egitea, musika egitea, da harentzat saririk onena”.

Eta sariak hartzera ohituta behar lukeen pertsona izan arren, hunkituta hartu zuen saria Jose Luis Ansorenak, Remigio Mendibururen eskultura, maite dutenek inguratuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Tronu aretoan. Jasotakoagatik bihotez eskerrak emateko hitzak ez zitzaizkion falta izan. Gipuzkoako Aldun Nagusi Martín Garitanok ere Jose Luis Ansorenaren irudia eta honek egindako lana goratu zuen omenaldian.

Eta amaitu baino lehen Jose Luis Ansorenarekin batera eguneko protagonista izan zen musikak hartu zuen tokia, berriro, Errenteriako Andra Mari Koralak bere sortzaileari kantuan egin zion omenaldi, Aita Donostiak sortutako *Urretxindorren heriotza* abestiarekin, Haizea Muñoz bakarlari zela.

Hala ere, gela ia dantzan jarri zuena Jose Luis Ansorenak berak sorutako *Atabala eta txistua* kantu ezaguna izan zen, gutxi izan baitziren kantuari eusteko gai izan zirenak. Eta osterera ere txistua goratuz amaitu zen musikologo, musikagile eta zuzendaria, Eusko Ikaskuntzaren 2011ko Manuel Lekuona saria omentzeko ekitaldia.